Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abuztuaren 4a, asteartea — 146 — Martes, a 4 de agosto de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

*Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetza programen udal Ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onespena.*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2020ko maiatzaren 28ako batzarraldian, hasierako izaeraz Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetza programen udal Ordenantzaren aldaketa onartzeari buruzko erabakia hartu zuen, zeina horrela idatzita geldituko den:

1. *Xedea.*

Araudi honen xedea hau da, alegia, Hemisferioko herri txiroetako garatze bidean ari diren Europako herriak barne biztanleen gizarte eta ekonomi egoera garatu eta hobetzera bideratuko diren iharduerak aurrera eramateko asmoz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartuz, Erakunde Ez-Gubernamentalekin lankidetza programak antolatzeko eta garatzeko diru laguntzak emateari buruzko erregimena arautzea, eta baita udalerri honetan burutuko diren sensibilizazio proiektuak ere.

2. *Eskatzaileak.*

Araudi honetan ezarritako diru laguntzak eskatzeko aukera nortasun juridikoa daukan, irabazi asmorik ez, deialdi honen xedearekin bat datozen iharduerak aurrera eramaten dituen eta egoitza Andoainen eta/edo Gipuzkoan izatea.

Diru laguntzak emateko orduan ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:

— Elkartasuna eta baliabide pribatuak bultzatzeko erakunde eskatzaileak duen gaitasuna.

— Garatu gabeko herrientzako laguntza arloan duen esperientzia frogatua eta bere aurrekontuen barruan halako lankidetza motari ematen dion lehentasuna.

— Diruz lagunduko diren iharduerei eusteko duen gaitasuna.

Deialdi honetara biltzeko espreski baztertuta daude Estatuaren, Autonomi Administrazioaren, Foru Diputazioaren eta diruetxeen menpeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3. *Baloraziorako irizpideak.*

I. eranskinean jasotako lehentasunak erabakiko dituzte diru laguntzak.

4. *Diru laguntzen zenbatekoa.*

Emango diren diru laguntzen zenbatekoa ezin daiteke aurrera eramango den ihardueraren kostuaren % 90 baino handiagoa izan, Erakunde Ez-Gubernamentalak ihardueraren kostuaren % 10 gutxienez finantziatu behar duelarik.

Salbuespen gisa, diru laguntzak emateko jarri den muga hori Udalak gaindi dezake, baldin eta diru laguntzak xede hauek baditu:

— Komunitatearentzat biziki interesgarria izatea eta parte hartze horrek Nazioarteko Lankidetza arloari berrikuntzaren bat ekartzea.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

*Aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza municipal de programas de cooperación con países en vías de desarrollo.*

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 28 de mayo de 2020 aprobó con carácter inicial la modificación de la Ordenanza municipal de programas de cooperación con países en vías de desarrollo, el cual quedará redactada de la siguiente forma:

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente Ordenanza regular el régimen de otorgamiento de subvenciones para la organización y desarrollo de programas de cooperación con Organizaciones No-Gubernamentales para la realización de actuaciones dirigidas al desarrollo y mejora de las condiciones socioeconómicas de la población de los países pobres del Hemisferio, teniendo en cuenta las desigualdades existentes entre mujeres y hombres, incluyendo países de Europa que se encuentren en vías de desarrollo, así como proyectos de sensibilización a realizar en este municipio.

2. *Solicitantes.*

Podrán solicitar las subvenciones establecidas en la presente Ordenanza cualquier organización o institución no gubernamental con personalidad jurídica, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria y que tengan su sede en Andoain y/o Gipuzkoa.

En el reparto de subvenciones se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

— La capacidad de la organización solicitante de movilizar la solidaridad y los recursos privados.

— La experiencia contrastada en materia de ayuda a los países subdesarrollados y la preferencia que concede a este tipo de colaboración dentro de sus presupuestos.

— La capacidad para sostener las acciones subvencionadas.

Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria las Instituciones o servicios dependientes del Estado, la Administración Autonómica, la Diputación Foral y las Entidades de Ahorro.

3. *Criterios de valoración.*

Las prioridades en la asignación de las subvenciones vendrán determinadas en el anexo I.

4. *Cuantía de la subvención.*

La cantidad de las subvenciones que se concedan no podrá superar el 90 % del coste de la actividad a desarrollar, debiendo la ONG cofinanciar el 10 % del proyecto como mínimo.

Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá superar los límites de la subvención establecidos siempre y cuando el objeto de la subvención:

— Posea un eminente interés comunitario y constituya una intervención novedosa dentro del ámbito de la Cooperación Internacional.

EK\CV GAO-I-2020-03696

— Lankidetza arloan egiaztatutako kaudimena izanik programa finantzatzeko nahikoa fondorik ez du(t)en erakunde bat(zu)ek burutzea.

Proiektuetan sartzen diren zeharkako kostuak, hau da, Kudeaketa, administrazioa eta segimenduak sortutakoak, gehienez ere % 2a sartu ahal izango da.

Halaber, proiektuaren kostuaren % 2a ondorengo partidara zuzendu ahal izango da «Atzerrira doazen laguntzaileak».

Ez da diru laguntzarik emango identifikazioak, bideragarritasun azterketak eta proiektuak idazteak sor ditzaketen gastuetarako.

5. *Kontratua-hitzarmena egitea.*

Udalak kontratua egingo du diru laguntzak jasoko dituzten erakundeekin, horien legezko ordezkarien bitartez, eta kontratu horrek alderdi hauek eduki behar ditu:

— Aurrera eraman behar den ihardueraren edo programaren xedea.

— Hori garatzeko modua, erakundeak bere gain hartuko dituen betebeharrak espreski aipatuz.

— Iharduera edo programa burutzeko egutegia, dirulaguntza jasoko duen proiektuak gehienez ere 2 urtetako epea izango du burutzeko.

— Diru laguntzaren zenbatekoa eta hura ordaintzeko era.

— Jasotako diru laguntza egiaztatzeko era.

— Garatutako programari buruzko txostenak eta memoria egiteko beharra.

6. *Eskaerak - Agiriak.*

II. eranskinean azaltzen den ereduan aurkeztu behar dira eskaerak, honako agiriekin batera:

— Iharduera edo programari buruzko proiektu xehea, espreski aipatuko dituena honako hauek: xedeak, iharduera zein biztanlegori zuzenduko zaion, herrialdeko gizarte, ekonomi eta geografi ezaugarriak, ekintzaren edo ihardueraren edukia, genero ikuspegia kontuan hartuz, parte hartzearen aurrekinak, iharduera burutzeko ardura izango duten pertsonak edo erakundeak eta iharduera burutzeko epeak.

— Aurrikusitako sarrera eta gastuen aurrekontua. Nolanahi ere, espreski aipatu behar da zer laguntza jasotzen den beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen eskutik.

— Erakunde eskatzailearen estatutuen fotokopia egiaztatua.

— Hizkuntza modu sexistan ez erabiltzea eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua duten irudiak erabiltzea diruz lagundutako jarduera gauzatzerakoan.

Eskaera-orrian bertan eskatzaileak Andoaingo udalari baimen emango dio, zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak bere kabuz egin distan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza sailean.

Kontsulta egiteko baimenik eman ezean, zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

7. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Araudi honetan aurrikusitako diru laguntzak eskuratzeko eskaerak 30 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

Udalak ikusiko balu eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago edo osatugabeak direla, 10 eguneko epea emango lioke falta direnak aurkezteko

— Sea realizada por una o varias organizaciones con acreditada solvencia en el área de la Cooperación y que carezca de fondos suficientes para financiar el programa.

En relación con los costes indirectos que se incluyen en los proyectos, es decir, los derivados de la gestión, administración y seguimiento, sólo se podrá incluir como máximo un 2 % en estos conceptos.

Asimismo, un 2 % del coste del proyecto podrá ir destinado a la partida «Personal expatriado» (cooperantes).

No se subvencionarán gastos correspondientes a identificación, estudio de viabilidad y formulación de los proyectos.

5. *Establecimiento de contrato-convenio.*

El Ayuntamiento establecerá un contrato con las organizaciones perceptoras de subvenciones, en la persona de su representante legal, que deberá contener los siguientes aspectos:

— Objeto de la actividad o programa a desarrollar.

— Forma de desarrollo de la misma con expresa mención a las obligaciones que adquiere la entidad.

— Calendario de ejecución de la actividad o programa, siendo el plazo máximo para la ejecución del proyecto a subvencionar el de 2 años.

— Cuantía de la subvención y la forma en que la misma va a hacerse efectiva.

— Forma de justificación de la subvención recibida.

— Obligaciones respecto a la emisión de informes y memoria del programa desarrollado.

6. *Solicitudes - Documentación.*

Las solicitudes se presentarán, conforme al modelo que figura en el anexo II, y acompañadas de la siguiente documentación:

— Proyecto detallado de la actividad o programa con expresa mención de: objetivos, población a la que va dirigida la acción, características socio-económicas-geográficas de la zona, contenido de la acción o actividad, desde una perspectiva de género, antecedentes de la intervención, persona o entidades responsables de la ejecución y plazos de ejecución.

— Presupuesto de ingresos y gastos previstos. En cualquier caso, será necesaria la mención expresa a las ayudas percibidas de otras instituciones públicas o privadas.

— Fotocopia compulsada de los Estatutos de la entidad solicitante.

— Hacer un uso no sexista del lenguaje y la utilización de imágenes con presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres.

En el mismo impreso de solicitud deberán autorizar expresamente al Ayuntamiento de Andoain para recabar los datos necesarios para la acreditación de estar al día en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

Si no dan la autorización, deberán presentar los certificados en los que se recojan que están al corriente en sus obligaciones tributarias.

7. *Plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en la presente Ordenanza podrán presentarse en el plazo de 30 días naturales a partir de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación presentada por el solicitante fuese incompleta o insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá al mismo un plazo de

EK\CV GAO-I-2020-03696

edo osatugabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste tramiterik gabe eta agiriak eskatzaileari itzuliko zaizkio.

*8. Proposamenak egin eta ebaztea.*

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta ebazpen proposamena egingo du Tokiko Gobernu Batzarrari helarazteko.

*9. Erakunde eskatzaileari jakinaraztea.*

Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru laguntza eskatu duen erakundeari.

Ebazpenarekin batera, diru laguntza ematen den kasuetan, kontratua ere bidaliko da. Jakinarazpena jaso eta 20 eguneko epean luze jota, kontratua behar bezala beteta Udalari itzuli behar zaio.

*10. Diru laguntza egiaztatzea.*

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari dirua transferitu zaiolako frogagiria.

2. Aurrera eramandako programari edo iharduerari buruzko memoria xedea.

3. Emandako diru laguntzaren zenbatekoaren araberako gastuaren jatorrizko egiaztagiriak edo fotokopia konpultsatuak.

*11. Egiaztatzeko epea.*

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak aurkezteko epeak luze jota honako hauek izango dira:

a) 1. puntuko egiaztagiria 2 hilabeteko epean aurkeztuko da diru laguntza jasotzen denetik aurrera.

b) 2. eta 3. puntuetan eskatutako egiaztagiriak 3 hilabeteko epean aurkeztuko dira luze jota ere, lagundutako iharduera amaitzen denetik aurrera.

*12. Betebeharrak betetzen ez badira.*

Araudi honetan aurrikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak hura berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru laguntza deuseztea, gutxitzea edo itzularaztea.

*13. Aurrekontua, programa eta kontusaila.*

Diru laguntzetarako deialdi hau burutzeko zenbatekoa Udalak urtero onartzen duen aurrekontuan jasota egongo da.

*14. Amaierako Xedapena.*

Araudi hau indarrean izango da, apirilaren 2ko 7/85 Legeko, Toki-Eraentzako Oinarrien Lege Arautzaileko 70.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta indarrean jarraituko du Udal Batzarreak bere aldaketa edo indargabetzea erabaki artean.

I. ERANSKINA

BALORAZIO IRIZPIDEAK

a) Irizpide orokorrak.

Dirulaguntza emateko proposamena jarraian adierazitako irizpideen arabera egiten da:

— Egitasmoaren edo GKEaren zuzendaritzan lankide Andoaindarrik jardunean aritzea.

10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite y se devolverá la documentación al solicitante.

*8. Elaboración y resolución de propuestas.*

Presentada la documentación requerida, la Comisión Informativa de Servicios Sociales elaborará un informe de las solicitudes recibidas y emitirá una propuesta de resolución que se elevará a la Junta de Gobierno Local.

*9. Notificación a la entidad peticionaria.*

La resolución adoptada por la Junta de Gobierno Local será debidamente notificada a la organización peticionaria de la subvención.

Junto a la resolución, en los casos de concesión de ayuda, se remitirá el contrato. En el plazo máximo de 20 días a contar desde el siguiente a la recepción de la notificación, dicho contrato deberá ser devuelto al Ayuntamiento debidamente cumplimentado.

*10. Justificación de la subvención.*

Las organizaciones beneficiarias estarán obligadas a presentar al Ayuntamiento la documentación que a continuación se establece:

1. Justificante de la transferencia del dinero a la persona señalada como responsable de la ejecución del programa.

2. Memoria detallada del programa o actividad realizada.

3. Justificantes originales o fotocopias compulsadas del gasto por el importe subvencionado.

*11. Plazo de justificación.*

El plazo de presentación de la documentación requerida en el artículo anterior se realizará como máximo en los siguientes plazos:

a) La justificación del punto 1 se hará en el plazo de 2 meses desde la recepción de la subvención.

b) La justificación requerida en los puntos 2 y 3 se realizará en el plazo máximo de 3 meses a contar desde la finalización de la actividad subvencionada.

*12. Supuestos de incumplimiento.*

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se prevean en la presente Ordenanza supondrá la revisión de la misma y en su caso la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

*13. Presupuesto, programa y partida.*

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones estará consignada en el presupuesto que anualmente aprueba la Corporación.

*14. Disposición Final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor en conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y permanecerá vigente hasta que el Pleno municipal acuerde su modificación o derogación.

ANEXO I

CRITERIOS DE VALORACIÓN

a) Criterios generales.

La propuesta de concesión de subvenciones se realiza en base a los siguientes criterios:

— Que en la dirección del proyecto o en la ONG se encuentre algún/a cooperante Andoaindarra.

EK\CV GAO-I-2020-03696

— Entitatean zuzendaritza-lanpostuetan edo organoetan jarduten duen emakumeen kopurua.

— Egitasmoa burutzea udalerriarekin elkarkidetuta dauden herrialdeetan.

— Andoaingo Udalak diruz lagundutako egitasmoek izan dezatela eragina kontinente guztietan.

— Ekintza egitasmoaren xedea izan dadila laguntza jasoko duen herriari garatzeko ahalmena handitzea bilatuko duena, lagundutakoek beraiek egitasmoaren Kudeaketarekin bere kabuz aurrera jarraitzeko moduan.

— Herritarren oinarrizko premia eta beharrei erantzungo dietenenak izatea, garapen bidean dauden herrialdeetako gizataldeerik behartsuenei laguntza eskainiz.

— Egitasmoaren helburu izan dadila giza-eskubideak bultzatzea eta bermatzea.

— Egitasmoa burutuko deneko herrialdeak duen Giza Garapen Tasa aintzakotzat izatea.

— Beste erakunde batzuen aldetik elkar-finantzatua izatea.

— GKE bakoitzeko egitasmo bakarra hartuko da aintzat, laguntzak erakunde ezberdinei ahalik gehien banatzeko xedez.

— Egitasmoaren bideragarritasuna.

b) Egitasmoak baloratzeko zehazturiko aldagaiak.

* Giza Garapeneko Tasa (GGT): (gehienez 30 puntu).

— 105. lekuraino: 10 puntu.

— 106 eta 136 artean: 20 puntu.

— 136tik gora: 30 puntu.

* GKEak herrialdean duen irismena: (gehienez 5 puntu).

Helburua da lankidetzarako diru guztia ez bideratzea herrialde bakar batera.

Aurkezturiko egitasmoetan herrialdean GKE bakarra baldin badago: 5 puntu.

2 baldin badaude: 4 puntu.

3-4 baldin badira: 3 puntu.

4tik gora: puntu 1.

* GKEren eskarmentua: (gehienez 15 puntu).

Andoaingo deialdian duela 10 urtetik gora dirulaguntzarik ematen zaien GKEak: 15 puntu.

5 eta 9 urte artean: 10 puntu.

1 eta 4 urte artean: 5 puntu.

Urtebetetik behera : 0 puntu.

* Egitasmoa: (gehienez 50 puntu).

— Egitasmoa erabakigarri nabarmentzen baldin bada besteen gainetik: 50 puntu.

— Gizataldeerik behartsuenei zuzendutakoa baldin bada (ezindutakoak, bestelako zailtasunak): 40 eta 45 puntu artean.

— Ahulduriko osasuna agertzen duten gizataldeengan zuzeneko eraginik baldin badu: 35 eta 42 puntu artean.

— Hezkuntzari edeo garapen egitasmoei loturikoa baldin bada: 30 eta 35 puntu artean.

— Hiritarren ahalmentzea eta partaidetza: 30 eta 35 puntu bitartean.

— Beste batzuk: 30 puntutik behera.

— Aintzat hartuko dira, gainera, aurkezturiko egitasmoa doituko duten indize zuzentzaile batzuk:

Beheratzekoak:

Eskaturiko finantzaketak % 80a gainditzen baldin badu 5 puntu beheratuko zaio.

— El número y porcentaje de mujeres de la entidad en puestos u órganos directivos.

— Que el proyecto se desarrolle con países hermanados con esta localidad.

— Que los proyectos subvencionados por el Ayuntamiento de Andoain tengan repercusión en todos los continentes.

— Que el proyecto de actuación vaya dirigido a incrementar la capacidad de desarrollar de la población objeto de la ayuda, de tal forma que ellos puedan continuar con la gestión del mismo.

— Que den respuesta a las necesidades fundamentales de la población atendiendo a las capas más desfavorecidas de los países en vías de desarrollo.

— Que el proyecto tenga como objetivo impulsar y garantizar los derechos humanos.

— Tener en cuenta el Indice de Desarrollo humano del país en que se desarrolla el proyecto.

— Que sea cofinanciado por otras organizaciones.

— Sólo se tendrá en cuenta un proyecto por ONG, con el objetivo de diversificar las ayudas a entidades diferentes.

— La viabilidad del proyecto.

b) Variables definidas para valorar los proyectos.

* Indice de Desarrollo Humano (IDH): (max. 30 puntos).

— Hasta el puesto 105: 10 puntos.

— Entre 106 y 136: 20 puntos.

— Más de 136: 30 puntos.

* Presencia de la ONG en el país: (max. 5 puntos).

El objetivo es que no se centre todo el dinero de cooperación en un país.

Si de los proyectos presentados hay una única ONG en el país 5 puntos.

Si hay 2: 4 puntos.

Si hay 3-4: 3 puntos.

Más de 4: 1 punto.

* Experiencia de la ONG: (max. 15 puntos).

ONGs a las que se concede subvención en la convocatoria de Andoain desde hace más de 10 años: 15 puntos.

Entre 5 y 9 años: 10 puntos.

Entre 1 y 4 años: 5 puntos.

Menos de 1 año: 0 puntos.

* Proyecto: (máx. 50 puntos).

— Si el proyecto destaca de manera decisiva sobre los demás: 50 puntos.

— Si va dirigido a las capas más desfavorecidas (minusvalías, otras dificultades): entre 40 y 45 puntos.

— Si tiene una incidencia directa en colectivos que presentan una salud debilitada: entre 35 y 42 puntos.

— Si tiene relación con la educación y/o proyectos de desarrollo: entre 30 y 35 puntos.

— Empoderamiento y participación ciudadana: entre 30 y 35 puntos.

— Otros: menos de 30 puntos.

— Se tendrán en cuenta, además, una serie de indices correctores en el proyecto presentado:

Aminoración:

Si la financiación solicitada supera el 80 % se aminora 5 puntos.

EK\CV GAO-I-2020-03696

Eskaturiko finantzaketa % 80 eta % 70aren artean dagoenean, 4 puntu jaitsiko zaizkio.

% 70 eta % 50ren artekoa baldin bada 3 puntu behera.

% 40koa baldin bada edo handiagoa 4 puntu behera.

Gehitzekoak:

Heziketa egitasmoa lehen mailako hezkuntzari dagokiona baldin bada 2 puntu gehituko zaizkio, zeren eta Nazio Batuen Erakundearen helburuetakoa baita milurteko honetarako haur guzti-guztiek lehen hezkuntza jasotzeko aukera izatea.

Andoain, 2020ko uztailaren 22a.—Alkatea. (3696)

Cuando la financiación solicitada se encuentra en la franja de entre el 80 y el 70 %, la aminoración será de 4 puntos.

Si se encuentra entre el 70 y el 50 % será de 3 puntos.

Si es igual o superior al 40 % será de 4 puntos.

Aumentar:

Cuando el proyecto educativo corresponda a educación primaria se aumenta en 2 puntos, ya que uno de los objetivos de la ONU para el milenio es lograr que todos los niños/as tengan acceso a la educación primaria.

Andoain, a 22 de julio de 2020.—El alcalde. (3696)

EK\CV GAO-I-2020-03696